



1984 urte inguruan sortu zen Oiñakar S. Coop., Euskadiko Kutxaren Enpresa Dibisioaren sustapen gisa. José M<sup>a</sup> Loiti kooperatibako lehen gerente eta sortzailea izan zen Orga Jasotzaileen egungo negozioaren benetako bultzatzailea.

Japoniako MITSUBISHI enpresarekin izenpetutako lankidetzaren bidez enpresari eta bere jarduerari hasiera eman zitzaien. Oñati aukeratu zen kokaleku gisa, Chocolates Loyolaren desagertzeari aurre egiteko. 1987an Oiñakar OÑALAN Taldearen zati izatera pasako da (ULMA Taldea izango dena), eta kooperatibak negozioa handiagotuko du Japoniako Daifuku etxearekin Biltegi Automatikoak merkaturatzeko lankidetzaren izenpetu eta gero.

Aurrerago, ULMA Taldearen Identitate Korporatiboko Proiektuaren baitan, kooperatiba ULMA Manutención S. Coop. izatera pasako da, ongi bereizitako bi jarduera negozio izango dituenak: Orga Jasotzaileak eta Handling Systems.